

BALIO PROPOSAMENA

Hasteko, gure produktuak asetzen duen behar bat da denbora asko aurrezten digula, azken finean, ez dugulako erabaki behar zein motatako arropa jarri behar dugun, gure pantaila intelektualak egiten duelako hori guretzat. Pantaila horrek, egun horretan dugun egokiera edo jarduera ezberdinetarako egokitutako arropa aukeratzen digu, horrela, goizean goiz ez dugu denbora galdu behar janzkera aukeratuz. Pantaila honen bidez, eguneroko egokitzapena errazagoa bihurtzen da, eta erabiltzaileari egokitu nahi duen itxura lortzea azkartzen zaio, denbora asko aurrezten digulako.

Gainera, gure pantailak beste ispiluen artean ezberdina egiten gaituena da pantailak gure arropa guztia gordetzen duela eta, beraz, ez dugu gehiegi pentsatu behar gure arropa aukeratzeko, pantailak automatikoki aukeratzen baitu eguneroko modaren arabera eta gure gustuak kontuan hartuz. Pantaila horrek estilo pertsonalizatua eskaintzen du, eta erabiltzailearen beharretara egokitzen da, beste ispiluen funtzio orokorrak baino askoz ere sofistikatuagoa delarik.

Bestalde, esan dezakegu gure pantailaren prezioa ez dela merkea, 400 euroko kostua duelako, eta horregatik, ez da prezio guztiei egokitzen. Hala ere, pantaila hauek batez ere moda gustuko duten pertsonentzako izango dira, hau da, jendeak arreta handia jartzen duen edertasunaren eta estiloaren munduan murgilduta daudenak. Horrelako gailu batek, bere prezioaren arabera, zaletu eta erabiltzaile fidelak izango ditu, baina ez da produktua denentzat. Modaren zaleek, noski, aukera bikaina izango dute, baina moda gustatzen ez zaien jendeari gure pantaila ez zaiolako interesatuko.

Laburbilduz, gure produktua denbora aurrezten duen tresna bat da, arropa aukeratzeko denbora ez galduz. Pantaila intelektualak eguneroko egokieretarako arropa automatikoki hautatzen du, erabiltzailearen gustuak eta modaren arabera, denbora asko aurrezten duekako. Beste ispiluen artean, gure pantaila berezia da, arropa guztia gordetzen duelako eta estilo pertsonalizatua eskaintzen duelako. Hala ere, pantailaren prezioa 400 eurokoa da, eta horregatik, moda gustatzen zaien jendeak gehiago erosiko du, produktua ez delarik egokia moda ez zaien jendeari gustatzen.